



5. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko maiatzaren 17an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako Hiria eta udaletxea.

DATA: Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamazazpian

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro andrea
Jesús M^a García Garde jauna eta
Fco. Javier Pombo González jauna

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrea.

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta jauna behin-behineko idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Lucia Querido Noceti zinegotziak bere ezin etorria justifikatzen du osasun arazoak ditu eta.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 8:15ean, bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako honako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldiko akta 4. 07-4-19 datakoa irakurri eta onartzea.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta (akats baten ondorioz deialdian 3. akta bezala izendatu dena) aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak osorik onartzea erabaki du, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea.

2.- 20.zk.dun taxi-lizentzia eskualdatzeko eskaera.

2007ko apirilaren 17an, JOSE LUIS SUAREZ FERREIRO jaunak eskabidea aurkeztu du daukan taxi-lizentzia, 20. zenbakiduna, ROBERTO SUAREZ DA SILVA jaunari eskualdatzeko.

Gaur egun Pasaian bi araudi aplikatzen dira taxi-lizentzia eskualdatzeko. Batetik, Pasaia Udalbatzak 1985eko irailaren 30ean onartu zuen Auto eta Ibilgailuen Lizentziak Eskualdatzeko Araudia, eta, bestetik, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo autoz garraiatzeari buruzkoa, eta urriaren 15eko 243/2002 Dekretua, esandako Lege horren Erregelamendua onartzen duena.

Udal-erregelamenduak zehazten du zein kasutan eskualda daitezkeen taxi-lizentziak; eta kasu horietako bat da titularrak 13 urte baino gehiago izatea lizentziarekin eta udalean zerbitzua etenik gabe ematen.

243/2002 Dekretuak ere jasotzen du aukera hori bera, baina 10 urtera jaisten du gutxieneko antzinatasuna.

Planteatu den kasu honetan, azpimarratzekoa da 20. zenbakidun lizentziaren titular JOSE LUIS SUAREZ FERREIRO jaunak, ia duela 15 urte baino gehiago eskuratu zuela lizentzia eta, hortaz, betetzen duela lizentzia eskualdatzeko ezartzen den baldintza.

Lizentzia-hartzaileak bete beharreko baldintzei nahiz aurkeztu beharreko dokumentazioari buruz, aipatu dugun udal-erregelamenduaren 2. artikuluan eta 243/2002 Dekretuaren 6. eta 23. artikuluetan finkatutakoa hartu behar da kontuan.

ROBERTO SUAREZ DA SILVA honako dokumentazioa aurkeztu du: 2 argazki, errolda-agiria, nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua, ibilgailuaren txartel teknikoa, gida-baimena, beste taxi-lizentziaren baten titular ez dela adierazten duen zinpeko aitortpena, eskualdaketa- prezioa jasotzen duten agiriak, mediku-ziurtagiria eta salmenta-erosketa akordioa

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- BAIMENA EMATEA 20. zenbakidun taxi-lizentzia ROBERTO SUAREZ DA SILVA jaunari eskualdatzeko.

BIGARRENA.- Lizentzia eskualdatzeko, 10 laneguneko epean ROBERTO SUAREZ DA SILVA jaunak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu Udaletxean:

- Herri arteko ibilbideak egiteko arauzko baimena, V.T. seriekoa, bere izenean duela erakusten duen frogagiria.
- Atxikirik dagoen ibilgailuaren gida-baimena auto-taxi lizentziaren titular berriaren izenean.
- Orain langile autonomia dela frogatzen duen Gizarte Segurantzako dokumentazioa.
- Titular berriak JEZen emandako alta.
- Ematen duen garraio-zerbitzuan erabiltzaileei eragin diezaiekeen kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizun zibila estalita duela erakusten duen dokumentazioa, bai eta gainerako arrisku guztiak estaliko dituen aseguru-poliza ere, legeria espezifikoa hala exijitzen baitu.

HIRUGARRENA.- 20. zenbakidun taxi-lizentziari dagokion ibilgailuak lizentzia-emaileak zuen bera izan behar du —hain zuzen, **SEAT TOLEDO 3731 BDN** matrikuladuna—, eta 243/2002 Dekretuaren bigarren kapituluko laugarren atalean finkatzen diren baldintza guztiak bete beharko ditu.

LAUGARRENA.- Suarez jaunari ohartaraztea udalak edozein unetan egiazta dezakeela kasu honetan aplikatzen den araudian ezarritako baldintzak egoki bete diren, eta lizentzia honen titular izateko araudian xedatzen diren baldintzak betetzen ez badira, lizentzia baliogabetu egingo dela.

BOSGARRENA.- 20. taxi-lizentziaren titular berriak aurreikusitako udal-zergak ordaindu beharko ditu, udal honek likidatzen dizkionean.

3.- Zehapen espedientea, hirigintzako arau-hausteagatik. Hamarretxeta, 21.

EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Udal honek 2006ko ekainaren 13an Félix Elejoste Aranbarriren kontrako zehapen-espedienteari ekin zion Hamarretxeta kaleko 21. zenbakiko behegaina eskuinean dagoen merkataritza-lokalari bizitegi-erabilera ematen ari zitzaiolako.

Inputatuak ekainaren 30ean aurkeztu zuen alegazio idatzian honako argudioak azaltzen ditu:

- a) lokala estudiantarako alokatu zuen, errentamendu-kontratuan xedatzen zen legez; izan ere, adierazten zuen *“el bien inmueble que iba a ser objeto de la relación locativa, porque atendiendo a su superficie, ubicación, servicios dotacionales y a la normativa urbanística no podía ser ni transformarse en una vivienda”*.
- b) Kontratuan adierazten diren altzariak lokala erosterakoan bertan ziren.
- c) Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegiak 2004ko apirilaren 28an kontratua bukatutzat eman zuen (jatorrizko dokumentua erantsi du)

BIGARRENA.- Urriaren 9an Alkate Andreak ofizioz froga bat egitea erabaki zuen, lokal edo estudioaren bizigarritasunari buruzkoa, hain zuzen.

HIRUGARRENA.- Udaltzaingoak 2007ko urtarrilaren 29an txostena egin zuen eta bertan adierazten zuten lokal horretan bainugela dutxarekin eta zenbait elektragailu izan arren (harraska, ur-berogailua, arropa-garbigailu eta hozkailu txikiak, eta mikrouhin-labea), ez duela sukaldarik edota keak ateratzeko hargunerik.

LAUGARRENA.- Espedientean dagoen errentamendu-kontratuan estudio moduan alokatzen duela adierazten da.



PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Ezin da probatutzat jo Félix Elejoste Aranbarri Hamarretxeta kaleko 21. zenbakiko behegaina eskubian dagoen merkataritza-lokalari bizitegi-erabilera ematen ari zitzaionik; izan ere, errendamentu-kontratuan ez zaio etxebizitza-erabilera ematen, eta Udaltzaingoa txostenaren arabera, ezin zitzaion erabilera hori eman. Bestaldetik, inputatuak ezin zuen jakin bere lokalean norbait erroldatuta zegoenik edo erroldatzeko asmorik zuenik; nolahi ere, ezin dugu egiaztatu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzukizuna ez dira egiaztatuak izan espedientearen egindako frogak kontuan hartuta.

BIGARRENA.- Horiek horrela, Felix Elejoste Aranbarri ez da inolako hirigintzako arau-hausteren erantzule, eta beraz, ez da egokia zehapenik ezartzea.

HIRUGARRENA.- Kontuan hartu dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legeko 37. artikulua.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Felix Elejoste Aranbarri jaunak inolako arau-hausterik egin ez duela jotzea; izan ere, ez dago frogatuta Hamarretxeta 21. zk.ko behegainen eskuineko lokalari etxebizitza-erabilera eman dionik.

BIGARRENA.- Hala ere, Elejoste jaunari ohartaraziko zaio Udaltzaingoa aldizka lokala ikuskatzera joango dela, etxebizitza-erabilera eman ez zaiola egiaztatze aldera.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta honi aurre egiteko dauzkan bitartekoen berri ematea. Era berean, Pasaia Udaltzaingoiari jakinaraziko zaio ebazpena.

4.- Zehapen espedientearen, hirigintzako arau-hausteagatik. Azkuene, 34 behea.

EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Udal honek 2006ko ekainaren 20an Jose María José Alfonso eta María Pilar Gómez Garcíaen aurkako zehapen-espedienteari ekitea erabaki zuen, hain zuzen ere, Azkuene kaleko 34. zk.ko behe solairuan duten 4. lokalari etxebizitza-erabilera emateagatik.

BIGARRENA.- Inputatuak abuztuaren 1ean aurkeztu zuen alegazio idatzian honako argudioak azaltzen ditu:



a) lokala ez dagoela bizitegirako egokitua.

b) bazekitela erroldatzeko asmoa zuela; baina soilik babes publikoko etxebizitza eskatzaile gisa aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Udaltzaingoak 2007ko urriaren 25ean eta azaroaren 15ean txostenak egin zituen eta horietatik ondorioztatzen da lokal hori taberna edo tabernaren biltegia dela.

PROBATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Ezin da probatutzat jo Jose María José Alfonso eta María Pilar Gómez García Azkuene kaleko 34. zk.ko behe solairuan duten 4. lokalari etxebizitza-erabilera eman ziotenik;

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta erruztatuen erantzukizuna ez dira egiaztatuak izan espedientean egindako frogak kontuan hartuta.

BIGARRENA.- Horiek horrela, José Maria Alfonso jauna eta Maria Pilar Gómez García andrea ez dira inolako hirigintzako arau-hausteren erantzule, beraz, ez da egokia zigorrik ezartzea.

HIRUGARRENA.- Kontuan hartu dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legeko 37. artikulua.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENA.- José Maria Alfonso jaunak eta Maria Pilar Gómez García andreak inolako arau-hausterik egin ez dutela jotzea; izan ere, ez dago frogatuta Azkuene kaleko 34. zk.ko behe solairuan duten 4. lokalari etxebizitza-erabilera eman diotenik.

BIGARRENA.- Hala ere, Alfonso jaunari eta Gómez andreaki ohartaraziko zaie Udaltzaingoa aldizka lokala ikuskatzera joango dela, etxebizitza-erabilera eman ez zaiola egiaztatze aldera.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea eta honi aurre egiteko dauzkaten bitartekoen berri ematea. Era berean, Pasaiako Udaltzaingoiari jakinaraziko zaio ebazpena.

5.- Torreatze kaleko 7. zenbakiko etxabea dagoen lokala egokitu eta etxebizitza egiteko lizentzia eskaera.

Kepa Garciandia Telleria jn.ak 2006ko ekainaren 6an obra-lizentzia eskatu zuen Torreatze kaleko 7. Zk.ko etxabea dagoen lokala egokitu eta etxebizitza bezala erabiltzeko. Eskaerari erantsita proiektua aurkeztu zuen, M^a Teresa Carmona Barrio eta Ana Pérez del Gállego arkitektoek idatzia, eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2006ko ekainaren 2an ikus-onetsia.

Eraikin hori San Pedro 2.01 HIEan dago, “San Pedro” Hiri Eremuaren barruan, eta eremu horren hirigintza-erregimenari dagokion sailkapena honako hau da: hiri-lurra.

Lokala hirigune historikoen bizitegi-gunean dago eta horregatik Hirigune Historikoak Birgaitzeko Plan Bereziak barne hartzen du.

Eraikinaren hirigintzako fitxak, besteak beste, ondokoa zehazten du:

“(.)

- *Eraikinaren kodea: 2.T.7:*
- *Gradua: NPC balio arkitektonikorik gabeko eraikina, baina funtzionalki tipologia egokia eta ingurune historikoarekin bat datozen altuera eta bolumena dituena.*
- *Baimendutako jarduketa orokorrak. Mantentze-lanak eta apaindura, indartzea, berritzea eta aldatzea.*
- *ERAIKINAREN ERABILERA-ARAUDI OROKORRA Erabilera nagusia: bizitegia”*
Behere oina (BO): araudiaren arabera etxebizitzarekin bat datozen erabilerak.
...”

Horren arabera, beheko solairuan bakarrik etxebizitzarekin bateragarriak diren erabilerak baimentzen dira, eta etxebizitza-erabilera ez dago horien artean.

2005eko otsailaren 14an jakinarazi zitzaion eskaeraren aldeko erantzuna. Hala ere, 2006ko maiatzaren 12an Hirigintzako teknikariak aurkako txostena egin zuen eta interesdunari ekainaren 5ean jakinarazi zitzaion.

Behin eta berriz aipatutako jurisprudentziarekin bat, hirigintzako galderak informatzeko baino ez dute balio, geroke jarduera baten prestaketa baino ez dira, ez dira ez erabakitzaileak, ezta lotesleak ere. Hala ere, galderaren zuzenketa lehenbailehen jakinarazten saiatu gara, kalteak ekiditeko.

Obra egiteko aurkeztu den aurrekontua 36.803,66 eurokoa da.

Udal Ordenantzen 31. Artikuluan zerrendatzen diren lizentziei buruzko erabakia hartzeko organo eskuduna, espedientean txosten erabakigarria aldekoa ez denean, Tokiko Gobernu Batzordea da.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU



LEHENA.- Kepa Garciandia Telleria jn.ari obra handia egiteko lizentzia ukatzea Torreatze kaleko 7. Zk.ko etxabea dagoen lokala egokitu eta etxebizitza bezala erabiltzeko; Hirigune Historikoak Birgaitzeko Plan Berezian jasotzen den eraikinaren fitxan ez delako baimentzen etxebizitza-erabilera.

BIGARRENA.- Kontu-hartzaitzari agintzea dagozkion udal eskubideak likidatzeko.

6.- Gizarte-beharrizan Larrietarako laguntzen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2007ko martxoaren 29an, apirilaren 25ean eta apirilaren 26an aurkeztutako proposamenak, EJ 01, proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoa aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ 01 proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARRENA.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako kontusailean sartzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Kontu-hartzaitza Sailari ematea.

7.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Mainer Zampirain Puertas andreak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

2006ko irailaren 29an Mainer Zampirain Puertas andreak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, urte hartako abuztuaren 31n Euskadi Etorbidean erori egin zela eta.

Espedientea bideratu da eta jasota dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen da erorikoa egin zuela txorko baten inguruko lauzak egoera txarrean zeudelako.

Toki horretako espaloia nahikoa zabala da eta badago aukera txorko horretatik gertu pasa behar ez izateko; baina erorketa gertatu zenean espaloian inguruko taberna baten terraza zegoen jarrita – udalaren baimenarekin–, eta beraz, ezinezkoa zen mahai artetik pasatzea hondatutako tokitik pasa gabe.

Horiek horrela, egokia da erreklamazioa onartzea.



Horiek horrela, eta kontuan hartuta urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren Eranskinean arautzen dena –horren bidez onartu zen ondare erantzukizunaren eta motordun ibilgailuen zirkulazioari dagokion aseguruaren Legearen Testu Eraberritua, erreklamazio-jartzailearen lesioak gutxi gorabehera baloratzeko ezarri beharrekoa–; Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Mainer Zampirain andreak aurkeztutako erreklamazioa onartzea, Pasaiako Udalak baduelako erantzukizunik Euskadi Etorbidean 2006ko abuztuaren 31n egindako erorikoan.

BIGARRENA.- Zampirain andreak 2353'44 € ordaintzea (bi mila, hirurehun eta berrogeita hiru euro eta berrogeita lau xentimo).

HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileari jakinaraztea eta honen aurka egiteko dauzkan bitartekoen berri ematea.

B) Euskadi Etorbideko 9. Zk.ko jabe-erkidegoak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

F. JAVIER MARURI jaunak (administratzailea), EUSKADI ETORBIDEKO 9. zk.ko jabe-erkidegoaren izenean, erreklamazioa aurkeztu zuen, euren atari ondoan dagoen zuhaitz baten zainek hodi bat buxatu eta libratzeak eragindako gastuak direla-eta.

2007ko martxoaren 23an idatziz jakinarazi zitzaion ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkezteko beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar zuela, hau da, buxaketaren filmazioaren kopia.

Dokumentazio hori aurkezteko epea pasa da eta erreklamazio-jartzaileek ez dute eskatutakoa aurkeztu. Horiek horrela eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Testu Eraberrituaren 71.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Erreklamazio-jartzaileek erreklamazioari uko egin diotela jotzea, eta jarduketak artxibatzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileei jakinaraztea eta honen aurka egiteko dauzkaten bitartekoen berri ematea.

C) Egoi Aldalur jaunak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.



2007ko urtarrilaren 5ean Egoi Aldalur Rodriguez jaunak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, Germán Herreros Ibarra letratuaren bitartez, 2006ko abuztuaren 21ean Lezo Bide kalean egindako erorikoagatik.

Espedientea bideratu da eta egiaztatutzat jo da Aldalur jaunak estropezu egin zuela espaloian zegoen zulo batekin, lauza bat hautsita zegoelako.

Eroriko horrek Aldalur jaunari hainbat lesio eragin zizkion eta horien ondorioz 64 egunetan bajaran egon behar izan zuen. Gainera taxian ere hainbat gastu egin zuen.

Ez dago egiaztatuta Aldalur jaunaren arropa edo oinetakoak hautsi zirenik.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren Eranskinean arautzen dena –horren bidez onartu zen ondare erantzukizunaren eta motordun ibilgailuen zirkulazioari dagokion aseguruaren Legearen Testu Eraberritua, erreklamazio-jartzailearen lesioak gutxi gorabehera baloratzeko ezarri beharrekoa–; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea neurri batean Egoi Aldalur Rodriguez jaunak aurkeztutako erreklamazioa, Pasaiako Udala jotzen delako 2006ko abuztuaren 21ean Lezo Bide kalean egindako erorikoaren erantzule.

BIGARRENA.- Ordaindu beharreko kalte eta lesioak ondoren zehazten den moduan baloratzea:

- 64 egun ezinduta, 49,03 euro eguneko: 3137´92 euro.
- Taxia: 5,45 euro.

Guztira 3.152´62 € (hiru mila, ehun eta berrogeita hamabi euro eta hirurogeita bi xentimo) dira ordaindu beharrekoak. Horietatik 3.000 euro Pasaiako Udalak ordainduko ditu eta gainerakoa AXA aseguru-etxeak.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileari eta Pasaiako Udalaren aseguru-etxeari jakinaraztea, eta honen aurka egiteko moduen berri ematea.

D) Txomin Garmendia jaunak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

2007ko otsailaren 7an Txomin Garmendia Oyarzabal jaunak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, 2006ko irailaren 21ean bere ibilgailuak Daniel de Castelao kalean izandako kalteengatik.



Egiaztatu da ibilgailuak kalteak izan zituela udaleko langileek metalezko xafla bat gaizki jarri zutelako. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Txomin Garmendia Oyarzabal jaunak aurkeztutako erreklamazioa, 2006ko irailaren 21ean bere ibilgailuak Daniel de Castela kalean izandako kalteak direla eta.

BIGARRENA.- Garmendia jaunari 257'98 € ordaintzea (berrehun eta berrogeita hamazazpi euro eta laurogeita hamazortzi xentimo).

HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileari jakinaraztea, Mónica García Hernández letratuaren bitartez, eta honen aurka egiteko dauzkan bitartekoen berri ematea.

E) M^a Pilar Lozano andreak aurkeztutako ondare-erreklamazioa

2006ko abenduaren 16an M^a Pilar Lozano Puertas andreak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, urte hartako azaroaren 27an Torreatzeko pasealekuan egindako erorikoagatik.

Erorikoa egin zuen tokian egiten ari ziren obrak Trabajos Especiales ZUT, S.A. enpresari esleitu zitzaizkion (Bakiola pasealekua, 11, 48498, Arrankudiaga, Bizkaia).

“Pasai San Pedroko Torreatze eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa –Torreatze eta Allo etxeko ataurrearen arteko zatia–” obrari buruzko Administrazio Baldintzen Agiriak 10. artikuluan honako hau adierazten du: “Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatu badira, beti Udalak horrela erabakitzen badu, kontratistari entzun eta gero dagokion espedientea tramitatu ondoren. Hau dena Herri Administrazioen Kontratuen Testu Bateginaren 97. artikulua araberan”.

Agindu horretan Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Testu Eraberrituan xedatzen dena zehazten da. Lege hori ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartu zen eta 97.1. artikuluan ondokoa adierazten du: “kontratistak bere gain hartu behar ditu kontratua betetzerakoan edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak”.

Aipatu enpresari entzuna izateko aukera eman zitzaion eta ez du alegaziorik aurkeztu.



Espedientean jasota dauden agirietatik ondorioztatzen da herritarrentzat irekita dagoen toki batean egin zuela erorikoa eta bertan galtzada-harririk gabeko zerrenda bat zegoela, oinezkoentzat arriskutsua. Beraz, obrak egiten ari zen enpresako langileek zabarkeriaz jokatu zuten.

Pasaiako Udala kalteen erantzule izango litzateke soilik sortutako kalteak haren agindu baten ondorio zuzena balira edo proiektuan akatsik balego (aipatu Testu Eraberrituaren 97.2. artikulua). Ez da horrelakorik gertatu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzi guztien adostasunez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENA.- M^a Pilar Lozano Puertas andreak aurkeztutako erreklamazioa ezestea, Pasaiako Udala ez delako jotzen erreklamazio-jartzaileak egindako erorikoaren erantzule.

BIGARRENA.- Trabajos Especiales ZUT, S.A. enpresa jotzea Lozano andreak jasandako kalteen erantzule. Enpresaren datuak erabaki honetan jasota daude.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileari eta Trabajos Especiales Zut S.A. enpresari jakinaraztea eta honen aurka egiteko bitartekoen berri ematea.

F) M^a Rosario Sistiaga andreak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

2007ko maiatzaren 4an M^a Rosario Sistiaga Iparragirre andreak eta GROUPAMA SEUGROS aseguru-etxeak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuten; Roke Deun kalean, José Joaquín Otaegi plazan dagoen udal eraikineko fatxadan jarrita dauden euri-uren bi zorroten erori eta lehenengoaren ibilgailuan eragindako kalteengatik.

Espedientean jasota dagoen Udaltzaingoaren argitze-agirian adierazten da aipatutako gertakariak egiazkoak direla, eta kalteen balorazioa 1.784'67 eurokoa da.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzi guztien adostasunez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENA.- Onartzea M^a Rosario Sistiaga Iparragirre andreak aurkeztutako erreklamazioa.

BIGARRENA.- GROUPAMA SEGUROS aseguru-etxeari 1.484'16 euro eta Sistiaga andreari 300,51 euro ordaintzea.



HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileei jakinaraztea eta honen aurka egiteko bitartekoen berri ematea.

G) Ramona Siso López andreak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

2007ko urtarrilaren 7an Ramona Siso andreak ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, urtarrilaren 19an Zumalakarregi kalean egin zuen erorikoa dela-eta.

Udal artxiboetan kontsulta egin dugu eta Udaltzaingoak egindako txostenaren arabera, erorikoa egin zuen tokian zeuden obrak partikularrak ziren. Beraz, ez dago udalaren erantzukizunik. Erreklamazioa Erreti Eraikuntzak S.L. enpresari egin behar dio, hori delako obren arduraduna. Enpresa horren helbidea honako hau da: Astigarraga bidea, 2, bulegoak, 4. Solairua, eskuina, 11. Bulegoa, 20180 Oiartzun.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Ramona Siso andreak aurkeztutako erreklamazioa, 2007ko urtarrilaren 19an Zumalakarregi kalean egin zuen erorikoari buruzkoa.

BIGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileei jakinaraztea eta honen aurka egiteko bitartekoen berri ematea.

H) Allianz, S.A. aseguru-etxeak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

2007ko otsailaren 21ean Allianz compañía de Seguros y Reaseguros S.A.k, Maite Martin Puyalen bitartez, ondare-erantzukizunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen, 2006ko otsailaren 28an Eskalantegi kaleko 3. zenbakiko etxabea dagoen Arkupe Gastronomía Elkarteari eragindako kalteengatik.

Espedientea bideratu dugu, araudiak xedatzen duen moduan, eta honako gertaera hauek frogatutzat jo ditugu:

- 1) Excavaciones y Transportes Elizondo S.L. enpresak (Ergolen industrialdea, 596. zk., Urnieta) Nafarroa etorbideko 1. zenbakian Pasaiako Udalak duen ur-hargunea erabili zuen, inguruan (Donostian) egiten ari ziren obra batzuetarako erabili zituen kamioietatik eroritako lokatza garbitzearen.

- 2) Enpresa horrek ez zion Pasaiako Udalari ur-hargune hori erabiltzeko baimenik eskatu.
- 3) Erabilera oker horrek hodiaren haustura eragin zuen, eta horren ondorioz sortu ziren Arkupe Gastronomia Elkartean aipatutako kalteak, perituaren txostenean eta Udaltzaingoaren argitze-agirian jasotzen direnak. Kalte horiek erreklamazioa aurkeztu duen aseguru-etxeak ordaindu zituen. Hodiaren haustura eta horren ondoriozko kalteak 2006ko martxoaren 7an gertatu ziren, erreklamazioan otsailaren 28an gertatu zirela jasotzen bada ere.
- 4) Gertaera horien aurretik inork ez zion Pasaiako Udalari jakinarazi ur-hargune hori oker erabiltzen ari zirenik.
- 5) Excavaciones y Transportes Elizondo S.L. Pasaiako Udalarekin batera aritu zen udal ondasunetan sortu zituen kalteak konpontzen. Zehazki, obra zibila egin zuen, eta udal langileek, berriz, iturgintza-lanak egin zituzten. Horregatik ez zion Pasaiako Udalak enpresa horri kalteak ordaintzeko eskatu.

Horiek horrela, Excavaciones y Transportes Elizondo S.L. enpresa da udalaren ur-hodia haustearen erantzule bakarra, eta baita horrek eragindako kalteena ere; ur-hargunea udal baimenik gabe erabili zuelako Pasaiako Udalarentzat ez zen obra batean.

Udalak ez zuen sortutako kalteak ekiditeko modurik izan, ez zuelako izan enpresa horren jokabide bidegabearen berri hodia hautsi baino lehentxeago arte. Eta horren berri izan zuenean Udaltzaingoak esku hartu zuen, espedientean jasota dagoen moduan.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Allianz Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.k aurkeztutako erreklamazioa.

BIGARRENA.- Excavaciones y Transportes Elizondo S.L. enpresa jotzea 2007ko martxoaren 7an Arkupe Gastronomia Elkartean sortutako kalteen erantzule. Hori dela eta, erreklamazioak enpresa horri egin behar zaizkio, edo, hala badagokio, jurisdikzio zibilari.

BIGARRENA.- Erabaki hau erreklamazioa jarri duen erakundeari jakinaraztea eta honen aurka egiteko bitartekoen berri ematea. Halaber, Excavaciones y Transportes Elizondo S.L.ri jakinaraziko zaio erabakia.

8.- Obra-baimena: San Juan, 110.

2007-04-11n Joseba Eizagirre Mariscal jn.ak, Donibane kaleko 110. zk.ko jabe-erkidegoaren izenean, obra txikia egiteko lizentzia eskatu zuen estalkia aldatu eta fatxadak birgaitzeko.

Udal aparejadoreak eskaeraren aurkako txostena egin du, Gune Historikoak Birgaitzeko Plan Berezian xedatutakoaren arabera. Plan hori 2002ko otsailaren 19an onartu zuen Diputatuen Kontseiluak (maiatzaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Eraikinaren fitxak P-3b babes-gradua xedatzen du, eta besteak beste, honako hau ezartzen du: *“Kanpoko egituraren ordenazioz kanpo dauden jarduketak: azken solairua kentzea”* (laugarren solairua).

Halaber, aparejadoreak honako hau adierazi du: *“Balkoien hegaletatik txintxorrek eror daitezkeela eta, istripuak galarazteko neurriak hartu behar dira, hau da, bide publikora erortzeko arriskua duten elementuak berehala kendu.”*

HHBPB-aren 5.5.1. artikuluan honako hau xedatzen da: *“Antolaketatik Kanpo kalifikatzen dira Plan Berezi hau onartu baino lehen zeuden eraikin, eraikuntza-elementu edo instalazioak eta antolaketarekin bat ez datozela bereziki jota daudenak”*. Eta 5.5.2. artikuluan, berriz, honako hau adierazten da: *“Lurzoruaren Legeko 137. Artikuluan ezarritakoarekin bat, eraikin hauetan ezingo da gotortzeko, bolumena handiagotzeko, berritzeko edo desjabetzapenean balioa handitzea suposatuko luketen bestelako obrarik”*.

Bestalde, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 199. Artikuluan ondokoa xedatzen da: *“1.– Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko”*.

Nolanahi dela ere, Tokiko Gobernu Batzarreko kideek uste dute ez dutela nahikoa datu iritzia eman ahal izateko, eta gaia hobeto aztertu beharko litzatekeela; beraz, erabakia aurki egingo duten beste bilera batean hartuko dute.



Hala ere, beharrezkotzat jotzen da erkidegoari eskatzea hartu beharreko neurriak hartzeko, herritarrei edo ondasunei kalterik ez sortzearren.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Joseba Eizagirre Mariskalek, Donibane kaleko 110. zenbakiko jabe-erkidegoaren izenean, eskatu duen obra-lizentziari buruzko iritzirik ez ematea, eta gaia hobeto aztertu ondoren erabakia hartzeko konpromisoa agertzea.

BIGARRENA.- Hori horrela izanik ere, aipatu jabe-erkidegoari eskatuko zaio hatu beharreko neurriak hartzeko, hau da, bide publikora eror daitezkeen elementuak fatxadatik ketzea, pertsona eta ondasunei kalterik ez sortzearren.

Adierazitakoa betetzen ez bada, udalak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 203. 4 b) artikuluan ezarritako neurriak hartuko ditu, eta besteak beste, hamar hertsatze-isun jarriko ditu, gutxienez hilean bat, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa gehienez ere agindutako obretarako baloratu den kostuaren % 10ekoa izango da. Ezarri den azkeneko hertsatze-isuna borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, administrazioak, subsidiarioki, aldatutako errealitate fisiko hori leheneratu beharko du, eta araua hautsi duenari ordainaraziko dio.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau eskatzaileei jakinaraztea eta honen aurka egiteko bitartekoen berri ematea.

- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak ondokoak erabaki ditu:

9.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak, Udalaren agindupekoak. 07/2 proposamena.

Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2007ko maiatzaren 15ean egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietarako onuradunen zerrenda aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 6.550,00 eurokoak. Hau guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-401/07 Baimendutik ordainduko da.



10.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak, Eusko Jaurlaritzaren agindupekoak. 07/2 proposamena.

Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2007ko maiatzaren 15ean egindako proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdietarako onuradunen zerrenda aztertuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 53.235,30 eurokoak. Hau guztia indarrean dagoen udal aurrekontuko A-400/07 Baimendutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:05ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.